

BILKURA DATUAK

EGUNA: 2014/12/02	TOKIA Udaletxea
HASIERA ETA BUKAERA ORDUA 18:00:00 - 18:45:00	

BILDUTAKOAK:

Lehendakaria: Inazio Azkarragaurizar Larrea (BILDU)

Zinegotziak: Amaia Larrañaga Galdos (BILDU)
Josebe Landaluze Ruiz de Alegria (BILDU)
Josu Pereda Leceta (BILDU)
Maidor Morras Azpiazu (BILDU)
Omer Arregi Biain (BILDU)
Iratxe Zeziaga Mendizabal (BILDU)
Juan Antonio Barriocanal Arrieta (BILDU)
Kepa Urteaga Garcia (BILDU)
Juan Carlos Garitano Ezcurra (EAJ-PNV)
Maria Ubarrechena Cid (EAJ-PNV)
Ibon Arrupe Aldecocea (EAJ-PNV)
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)
Aritz Arrieta Kabiketa (PSE-EE)
Raquel Diaz Larracoetxea (PSE-EE)
Francisco Garcia Raya (PSE-EE)
Miren Lorea Lana Jauregi (PSE-EE)
Joxe Etxeberria Iztueta (ARALAR)
Iciar Lamarain Cenitagoya (PP)

Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta

Beste funtzionario batzuk: Iñaki Balzategi Garai, Kontuhartzailea.

BILDU EZ DIREN Ander Rodriguez Lejarza (BILDU)
UDALKIDEAK: Joseba Erramun Askasibar Zendoia (BILDU)
Iciar Lamarain Cenitagoya (PP)

BERTARATZE
ETA IRTEERAK:

Bilkura hasi denetik bukaeraraino ez da bertaratze zein irteerarik izan.

I. AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria): Arratsaldeon denoi, beno gutxi gorabehera zinegotzi guztiak gaude hemen, eta Plenoari hasiera ematera goaz.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

2014ko azaroaren 4ko bilkurako akta, aho batez, onartzen da.

2.- HASIERA BATEAN ONARTZEA “GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN BARRUAN DAUDEN GIPUZKOAKO ADMINISTRAZIOEN EREMUAN, BIDAARIEN ERREPIDE BIDEZKO GARRAIO-ZERBITZU PUBLIKO ERREGULARRAK HARMONIZATZEKO ARAUDIA”. (2014ZZER0155)

Udal Plenoak, aho batez, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Udalaren Zerbitzu Teknikoek “Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko araudia” aurkezten dute eta hau hasiera batean onartzea proposatzen da.

Udalaren Zerbitzu Teknikoek azaltzen dute:

- a) 2013ko martxoaren 4an, Gipuzkoako Lurralde Historikoko tarifa-sistema bateratua ezarri zen, eta horretarako abiapuntua txartel bakarraren eredu eta oinarri teknologikoa izan ziren, Gipuzkoako Foru Aldundiak LURRALDEBUS marka erabilia arrakastaz garaturik.
- b) Tarifa-sistema bateratua MUGI txartelaren inguruan eratuta dago; txartelari esker, titularrak bidaiatu dezake sistemari atxikitako edozein eragilerekina, partekatua den zonakapen baten arabera, tarifa bateratuak, talde berezi bateratuak eta hobaria duten garraio-aldaketak ahalbidetzeko politikak erabilia.
- c) Gaur egun, tarifa-sistema bateratuari atxikita daude Gipuzkoako Foru Aldundiaren emakida duten eragileak, LURRALDEBUS markaren barruan elkartuta, Donostia, Irun, Hernani, Arrasate, Errenteria, Eibar eta Zarautz udalerrietako hiri-autobusak eta Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos, SA, eta, horiez gain, RENFE trenbideko eragilea eta

Oiartzungo hiri-autobusa. Azken bi hauetan, erabiltzaileek tarifa-sistema bateratuaren txartela erabil dezakete ordaintzeko.

- d) Tarifa bateratuaren bidez lortu nahi diren helburuak honako hauek dira: Gipuzkoako taldeko garraio publikoa erabiltzaile guztientzat erakargarriagoa den sistema bihurtzea eta taldeko garraio publikoaren sistema sare bateratu moduan hautematea, horren guztiaren xede nagusia delarik iraunkorragoa den eta ibilgailu pribatuaren mendekotasun txikiagoa duen mugikortasuna sustatzea.
- e) Tarifa bateratuaren ondorioa den Gipuzkoako bidaiarien garraio publikoaren esparru berrian egiaztatu ahal izan da beharrezkoa dela zerbitzua arautzen duten arauak onartzea eta egokitu edo aldatzea, gipuzkoar guztiek eskubide eta betebeharrak izan ditzaten, garraioaren eskumena norena den edo zerbitzua nori ematen duen alde batera utzita. Halaber, zerbitzua ematen duten garraio-eragile guztiek zerbitzu hori emango dute arau-esparru bakar baten barruan. Partekatutako arau-esparru horrek garraio-eragileak diren enpresen betebeharrak ezarriko ditu, eta orain arte araudirik ez zegoelako edo izatezko hipotesi batzuk ez aurreikusteagatik zeuden hutsuneak konpondu egingo ditu, eta zerbitzua emateko orduan behar den segurtasun juridikoa emango die eragileei.
- f) Araudi hau oinarrituta dago Gipuzkoako Lurralde Historikoko taldeko garraio publikoan tarifa-sistema bateratua ezartzeko 2013ko otsailaren 4ko datarekin Arrasateko Udalak sinatutako lankidetzaren hitzarmenetan; bertan, berariaz xedatzen da Arrasateko Udalak konpromisoa hartzen duela Gipuzkoako Lurralde Historikoko bidaiarien garraio publikoko zerbitzua arautzen duen araudia harmonizatzeko egokiak diren jarduerak hasteko.
- g) 2014ko azaroaren 6an Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren Asanblada Orokorra aho batez onartu zuen Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamendu proposamena eta berai bidaltzea kontsorziatutako Udalei, barne-izapideak abian jarri eta onartua izateko.
- h) Hau guztia dela eta, Arrasateko Udaltzari Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamendua onartzea dagokio, bere eskuduntza eta lurralde esparruan.
- i) Erregelamendu honen xedea da Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen titulartasunekoak diren bidaiarien errepide bidezko erabilera orokorreko garraio-zerbitzu publiko erregularren ematea era bateratu eta homogeneoan arautzea.
- j) Erregelamendu hau ezargarria izango zaie garraio publikoko zerbitzua erabiltzen duten pertsoneri eta zerbitzua ematen duten eragileei.

- k) Erregelamendu hau idazteko prozesuan, zuzenean eraginda dauden taldeek parte hartu dute.
- l) 2014ko azaroaren 7an proposamenaren alderdi juridikoei buruzko txostena egin du Udaleko idazkari nagusiak.

Horiek horrela, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak egindako proposamena eta 2014ko urriaren 20an eta azaroaren 7an Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako arloak egindako txostenak ikusirik eta 2014ko azaroaren 10ean Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako informazio batzordeak ahobatez onarturiko diktamena ikusirik, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako Batzordeak Arrasateko Udaltzari PROPOSATZEN DIO:

Lehena.- Hasierako onespena ematea, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamenduari, Arrasateko Udaleko eskuduntza eta lurralde esparruan.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 egun balioduneko epean, interesdunek iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Onartzea informazio publikoaren fasean jasotako alegazioak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren baitan erregelamendu proposamena landu duen lan-taldeak modu bateratuan informatzea.

Laugarrena.- 2014ko abenduaren 4an Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamenduaren hasierako onarpenaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera bidaltzea.

Bosgarrena.- Iradokizunik aurkeztu ezean, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamendua behin betiko onartutzat joko da, berriazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu beharko da.

Seigarrena.- Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan, bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko Erregelamendua behin betiko onartu denean:

- a. Indarrean dagoen bidaiarien hiriko garraio-zerbitzu publikoaren emakidaren kontratua badagokio aldatzea.

- b. “LEINTZ GARRAIOAK, SL” emakidadun enpresari jakinaraztea harmonizazio-erregelamenduaren onarpena eta indarrean sartzeko data, berau zabaltzeko eta konpainien barne-araudiak araudi-bateratuarekin bat datozela ziurtatzeko.
- c. Onartzea Udalak GGLAren alde egindako kudeaketa-gomendioa ondorengo jardueretan:
- Tarifa-izaerako aparteko errekarua kobratzeko izapideetan.
 - Irisgarritasun unibertsa behar bezala betetzeko zaintza-lanetan.
 - Ibilgailuetako soinudun mekanismoak aktibatze beharrezkoak diren mandoen erosketan eta banaketan.
 - Harmonizazio-erregelamenduan jasotako arau-urratzeek eragindako zehapen-espeditentzen izapidetzean.
- d. Emakida-kontratu berrietan harmonizazio-erregelamendua derrigorrez betetzeko beharra jasotzea.
- e. Ez eguneratzea aparteko errekaruaren zenbatekoa GGLAko Batzar Orokorrekin bat etorri gabe.
- f. Harmonizazio-erregelamenduaren aldaketak onartzea, soilik GGLAren Batzar Orokorak aurrez hala erabaki badu.
- g. Udalbatzak harmonizazio-erregelamenduaren behin betiko onarpenari buruz erabakitakoa GGLAri jakinaraztea, erabakia hartu eta biharamunean.

3.- M^a ISABEL ITURBE ABASOLO ETA ALAITZ PEREZ DE ARENAZAREKIN (ETXEZURI BASERRIA) HITZARMENA SINATZEA, A.E. 86.- ZALDUSPE ESPARRUKO BIRZATIKETA PROIEKTUAREN EFEKTUETARAKO. (2013HITZ0007)

Udal Plenoak, aho batez, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

IKUSIRIK M^a Isabel Iturbe Abasolo eta Alaitz Perez de Arenaza Iturbek Etxezuri baserriaren ugazabak direla, honoko proportzioetan:

- M^a Isabel Iturbe, 22.077 zenbakidun errejistroko finkaren jabea da, eta elementu komunen (835 jatorriko finka) %75-eko partea dauka.
- Alaitz Perez de Arenaza, 22.078 zenbakidun errejistroko finkaren jabea da, eta elementu komunen (835 jatorriko finka) %25-eko partea dauka.

Baserriaren gainean jabetza horizontala eratuta dago. Baserriaren lursaila elementu komun bezala aurreikusten da. Baserriaren lursailaren zati bat, 2.507 m²-koa, A.E. 86.- ZALDUSPE esparru barruan kokatuta dago.

2014ko urriaren 2an, interesdunek hala eskatuta, Hirigintzako Zinegotzi Ordezkariaren Erabakiz 2.057 m²-ko zati horren zatiketa baimena eman zuen Udalak.

IKUSIRIK, 2013ko urtarrilaren 28an, Tokiko Gobernu Batzarrak hasiera baten onartu zuela “A.E. 86.- ZALDUSPE esparruko birzirikapen proiektua”.

Jendaurreko epe barruan M^a Isabel Iturbe Abasolo eta Alaitz Perez de Arenaza Iturbek alegazio idatzi bat aurkeztu zuten, bertan, laburbilduz, esparru barruan zegoen beraien lursaila (2.507 m²-koa) Udalaren esku uztearen truke jaso beharreko kalte ordaina hitzarmen bidez adostea proposatu zuten.

IKUSIRIK, 2013ko urriaren 14an egindako batzarrean, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuela jendaurrean erakustea “A.E. 86.- ZALDUSPE esparruaren birzirikapeneko alderdi ekonomikoak aldatzeko agiria”, funtsean aldatzen zuena hasieran onartutako birzirikapeneko agirian jasotakoa (1-5 eranskinak).

Hartarako emandako epean M^a Isabel Iturbe Abasolo eta Alaitz Perez de Arenaza Iturbek alegazio idatzi berri bat aurkeztu zuten, bertan, laburbilduz, berretsi egin zuten Udalarekin hitzarmena adosteko proposamena.

IKUSIRIK, azken dokumentu horren arabera, M^a Isabel Iturbe Abasolo eta Alaitz Perez de Arenaza Iturberi honoko eskubide eta betebeharrak dagozkiela A.E. 86.- ZALDUSPE esparruaren birzirikapenean:

Esleipenak:

Esleitzen zaie 1 zenbakidun finkan % 9,30 porzentaia.

Lurzoruaren konpentsazioa:

Birzirikapenera ekarri eta birzirikapenetik jasotzen duen lurzoruaren aldeagatik, jasoko dute 65.782,25 €-ko kalteordaina.

Hirigintza zama:

Esleitzen zaiei zatiari dagokio 218.031,33 €-ko hirigintza zama.

Behin behineko likidazioa:

Hirigintza zama (218.031,33 €) eta dagokiona baino gutxiago esleitu izanagatik kalteordaina (65.782,25 €) konpentsatu ondoren, ordaindu beharrekoa izango da 152.249,08 €.

KONTUTAN IZANIK, A.E. 86.- ZALDUSPE esparruaren hirigintza kudeaketa erraztu eta bermatze aldera, esparru horren birzirikapenean Etxezuri baserriak dauzkan eskubide eta betebeharren inguruan hitzarmena egiteko borondatea azaldu dutela bai Udalak bai nteresdunek, gehien bat hirigintza zamen kopurua arintzeko modu bat aurkitzeko.

Bestalde, interesdunek Etxezuri baserriak gaur egun daukan zelaia larre bezala erabiltzen jarraitzea nahiko luke.

Hauxe proposatu du Hirigintza batzordeak:

I.- Etxezuri baserriko jabeak diren M^a. Isabel Iturbe Abasolo eta Alaitz Perez de Arenaza Iturbe andreen eta Arrasateko Udalaren arteko hitzarmena sinatzea ontzat ematea, A.E. 86.- Zalduspe esparruko birzatiketa proiektuaren efektuetarako, jarraian azaltzen diren klausulen arabera:

“Hirigintza zama arintzea eta esleipenak doitzea

LEHENENGOA.- M^a Isabel Iturbe Abasolo eta Alaitz Perez de Arenaza Iturbek, AE 86.- ZALDUSPE esparruaren hirigintza kudeaketa dela-eta beraiei dagokien hirigintza zamaren zati bat, lursailetan ordainduko dute.

Hortaz, 1 zenbakidun finikaren gain esleitzen zaien porzentaia gutxitu egingo da. Gutxitze hori Udalaren alde joango da, eta gutxitutako hirigintza zama hori ere Udalak hartuko du bere gain.

BIGARRENA.- Goian azaldutako ordainketa hori zenbakietara eramaterakoan, hau da emaitza:

Oraingo esleipena.....	1 zenbakidun finikan % 9,30 porzentaia
Oraingo hirigintza zama guztira.....	218.031,33 €
Hirigintza zamen lehen ordainketa.....	111.211,30 €
Gutxiago esleitu izanagatik oraingo kalteordaina.....	65.782,25 €

Esleipen berria.....	1 zenbakidun finikan %6,00 porzentaia
Honi dagokion hirigintza zama guztira.....	140.665,46 €
Hirigintza zamen lehen ordainketa.....	71.749,27 €
Gutxiago esleitu izanagatik kalteordain berria.....	82.387,68 €

Aurrekoak Birzatikapen Proiektuan izango du islada.

Kalteordain horrekin konpentsatuko du hirigintza zamen ordainketaren lehen zatia, hau da, 71.749,27 € esparruko luraren kudeaketa eta bertako kalteordain guztiei aurre egiteko dagokion zatia. Gainontzeko 10.638,41 € horiek ondorengo hitzarkinetan ikusiko da zertara bideratuko diren.

HIRUGARRENA.- M^a Isabel Iturbe Abasolo eta Alaitz Perez de Arenaza Iturbek, 1 zenbakidun finikan esleitzen zaien porzentaia saldu abal izango dute, hala ere inori saldu aurretik Udalari eskaini beharko diete lehenik. Eta inorekin saltzeko tratua egin ezkerro, tratuaren baldintzak zeintzuk diren adierazi beharko diete Udalari, honek hala nahi izan ezkerro baldintza horietan eskuratu abal izango duen porzentaia hori.

LAUGARRENA.- Bestalde, 1 zenbakidun finikaren garapena bultzatze aldera, eta hori sustatzeko sustatzailearen bat agertu ezkerro, M^a Isabel Iturbe Abasolo eta Alaitz Perez de Arenaza Iturbek, Udalak hala eskatuta, beraien porzentaia hari saltzera behartuta egongo dira.

Gertaera horietarako bakarrik bada ere, hemendik eta orain ezartzen da salmentaren prezioa, eta hau izango da Birzatikapen Proiektuan jasotzen den aprobetxamendu horren prezioa, beti ere KPI-ak jasandako gora-beheren arabera eguneratuta.

Udalak 1 zenbakidun finkaren gainean daukan bere parte saltzen duenean ere, behartuta egongo dira M^a Isabel Iturbe Abasolo eta Alaitz Perez de Arenaza Iturbe beraien porzentaia saltzera, pertsona berari eta prezio berean, beti ere operazioa merkatuko prezioetan egiten baldin bada.

AE 86.- ZALDUSPE esparruko berdegunearen erabilpen pribatiboa

BOSTGARRENA.- M^a Isabel Iturbe Abasolo eta Alaitz Perez de Arenaza Iturbek birzatikapenera ekartzen duten lursaila (gaur egun Etxezuri baserriaren zelaia dena), eta birzatikapena egin ostean irtetzen den berdegunea leku berean kokatuta daude. Berdegunearen titularitatea Udalarena izango da, jabego publikoa izango du.

Berdegune horren zati bat Etxezuri baserriaren larre bezala erabiltzeko baimena emango zaie M^a Isabel Iturbe Abasolo eta Alaitz Perez de Arenaza Iturberi.

Honekin batera eranskin bezala doan planoan marraztuta dago zati hori.

SEIGARRENA.- Goian esan bezala, berdegune zati hori erabili ahal izango da bakarrik larre bezala, ez ortu edota beste edozein erabiletarako. Erabiltzaileek itxitura jarri ahal izango dute, udal ordenantzek ezarritako baldintzen arabera, dagokion udal baimena eskuratu ondoren.

Bertan ezingo da jaso ez txabola, ez inolako eraikinik ere.

Hori horrela, une oro Etxezuri baserriaren jabe direnek izango dute berdegune zatia erabiltzeko eskubidea, eta haren jabegoa eskualdatzea nahikoa izango da honako eskubide hau ere eskuz aldatzeko.

ZAZPIGARRENA.- Erabilpen pribatibo hori administrazio-emakida bidez gauzatzeko da, eta epea izango da 20 urtekoa, Birzatikapen Proiektua jabetza erregistroan inskribatzen den egunetik hasita.

Ondorio hauetarako, Udalak gutun bat bidaliko die M^a Isabel Iturbe Abasolo eta Alaitz Perez de Arenaza Iturberi, inskripzio hori zehin egunetan egin den jakinarazteko eta dagokion kontratua sinatzeko.

Administrazio-emakidaren prezioa izango da 7.000 €-koa, eta emakidaren hasieran ordainduko da, bigarren hitzarkinean aipaturiko "gainontzeko 10.638,41 €" horiekin konpentsatuz.

Kompentsazioa egin eta gero gelditzen diren 3.638,41 €, Birzatikapen Proiektua jabetza erregistroan inskribatu eta hiru hilabeteko epean ordainduko dizkio Udalak jabegoari.

ZORTZIGARRENA.- Lagatzen zaien lursaila garbi eta baldintza egokietan mantendu beharko dute Etxezuri baserriko ugazabek. Hau bete ezean, Udalak erabilpen pribatiboaren emakida eten ahal izango du.

BEDERATZIGARRENA.- Etxezuri baserriko ugazabek nahi izango balute 20 urte igaro baino lehenago erabilera hori utzi, uko egin ahal izango diote emakidari. Hori idatziz adierazi beharko diote Udalari.

Era berean, bere ardurapean dagoen edozer zereginetarako Udalak lagatako lursaila erabili beharko balu, lagapena bertan-behera uzteko aukera izango luke. Horretarako aldez aurretik, urte beteko aurrerapenarekin, idatziz adierazi beharko die hori Etxezuri baserriko ugazabei.

HAMARGARRENA.- Bestalde, 20 urteko epea igaro ondoren, alde biek, hau da, Udalak alde batetik, eta Etxezuri baserriko ugazabek bestetik, hala nahi izanez gero, berdegunearen erabilpen pribatiboaren administrazio-emakidak indarrean jarraitu ahal izango du honoko baldintzetan:

Kontratua urtetik urtera luzatuko da automatikoki, beti ere bi aldeetako batek emakida edo lagapenaren epea amaitu baino hiru hilbete lehenago, idatziz, berdegunea erabiltzen jarraitzeko asmorik ez duela jakinaraziko ez balu.

Lehenengo luzapenetik aurrera, urtean prezio bat ordainduko da erabilpen pribatibo horregatik, eta honakoa izango da: 21. urtean 500 €, eta handik aurrera kopuru hau bera KPIaren arabera eguneratuta. Prezio hau ordaindu beharko da luzapena indarrean sartu eta hilabeteko epean.

Dena den, luzapenak luzapen, emakidaren epea bere osotasunean (20 urteko epea + luzapenak) ezingo da legeak ezarritakoa baino haratago joan.

HAMAIKAGARRENA.- *Berdegunea erabiltzeari amaiera ematen zaionean, edozein dela amaitze honen arrazoia, Etxezuri baserriko ugazabek jarritako itxiturak erretiratu egin beharko dituzte.*

II.- Alkateari, edo legez ordezkatzan duen alkate-ordezkaritari, ahalmena ematea hitzarmena sinatu dezan eta adostutakoa gauzatzeko beharrezko gestioak eta jarduerak egin ditzan.

4.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA DE ARRASATE/MONDRAGON SOBRE EL MANTENIMIENTO DE SAIOLAN. (2014SMOZ0024)

La Secretaria da lectura a la siguiente moción presentada por el Grupo Municipal PSE-EE:

Justificación.

Los socialistas de Arrasate hemos tenido conocimiento de las intenciones de los representantes del Gobierno Vasco y de otros miembros del Consejo de Administración de SAIOLAN en acordar su fusión con la sociedad BIC BERRILAN.

SAIOLAN -Centro de Empresas e Innovación de Mondragón- cuya sede se encuentra en este municipio de Arrasate Mondragón, ha desempeñado durante los últimos 30 años una importante labor de emprendizaje que ha permitido el surgimiento de nuevas empresas, - algunas como Panda Software- en Euskadi, en el Alto Deba y, en particular, en Arrasate. A diferencia de lo que sucede con BIC BERRILAN, SAIOLAN se auto-financia en

cerca del 70% a partir de una actividad que es muy valorada por las empresas y que tiene importantes repercusiones sociales positivas como la creación de empleo.

La filosofía y la función social de SAIOLAN, en especial en el Alto Deba y en Arrasate, -una de las comarcas más castigadas por la crisis también industrial que padecemos- supera con creces la de mero gestor de subvenciones y ayudas u organizador de congresos, antes al contrario, las labores y apoyo de SAIOLAN se inician desde el primer momento de la creación de empresas, evaluando la viabilidad de la empresa, realizando una tarea de valoración del perfil profesional y personal del futuro empresario y acompañando al nacimiento de la empresa y desarrollo de la misma durante por lo menos los dos primeros años.

SAIOLAN ha creado una importante red de empresas que comparten entre ellas el haber sido fruto y resultado del buen hacer y know how de SAIOLAN. Asimismo, esta sociedad atesora un importante Know How, así como prestigio y contactos internacionales que a buen seguro se verían menoscabados cuando no perdidos tras su fusión con BIC BERRILAN.

Sin perjuicio de la necesaria optimización de recursos públicos y reorganización administrativa a la que se encuentran abocadas las instituciones vascas, no se comparte la lógica de fusionar centros de tan diversa filosofía, labor y función social, más si cabe cuando el tejido productivo del Alto Deba y Arrasate se ha visto gravemente golpeado por una crisis sistémica que ha terminado con una empresa de la importancia de .FAGOR ELECTRODOMÉSTICOS. El caso de Bizkaia es paradigmático de lo que se viene diciendo donde el CEDEMI (en la margen izquierda) y BEAZ no se han fusionado en un solo centro por no compartir filosofía ni atender las mismas necesidades sociales.

Mantener SAIOLAN y evitar su fusión con BIC BERRILAN es mantener en nuestro municipio un importante activo en favor del empleo, de la innovación y el futuro de Arrasate. Como miembro del Consejo de SAIOLAN, el Ayuntamiento no puede permitir su fusión sino que debe apostar por que este instrumento siga impulsando su actividad en Arrasate, hoy en día más necesaria que nunca.

Teniendo en cuenta todo lo anterior, se presenta por el grupo municipal socialista la siguiente MOCIÓN:

- a) *El Ayuntamiento Pleno de Arrasate insta al Gobierno Municipal para que sus miembros en el Consejo de Administración de SAIOLAN muestren su disconformidad con la propuesta de fusión de centros de BIC BERRILAN y SAIOLAN.*

b) El Ayuntamiento Pleno de Arrasate insta al Gobierno Municipal para que defienda en el Consejo de Administración de Saiolan su autonomía y buen hacer en el ámbito del emprendizaje empresarial y la identificación de cauces de colaboración y sinergias conjuntas con otros centros de emprendizaje de Gipuzkoa o de Euskadi.

ARITZ ARRIETA (PSE-EE):

Arratsaldeon. Nosotros presentamos esta moción después de haber tenido todos nuestros representantes en Gipuzkoa reuniones con personas de Saiolan y, desde luego, aunque técnicamente sabemos que se está valorando y se está determinando cuales van a ser las conclusiones técnicas de una posible fusión, si es así o no, en el caso de que se llegue a otra determinación, creemos que tenemos una gran falta de información tanto a través de la Diputación Foral de Gipuzkoa como del Gobierno Vasco.

De hecho, ya se han pedido interpelaciones a la Consejera la que todavía no ha respondido a las preguntas que ha planteado nuestro parlamentario en el Parlamento Vasco. Entendemos que aunque técnicamente se este valorando qué hacer con Saiolan, creemos que políticamente podría estar tomada la determinación de deslocalizar Saiolan porque sabemos que el Gobierno Vasco está fusionando entes públicos, pues para un menor gasto entendemos, y que una de ellas puede ser Saiolan entonces creemos que el Ayuntamiento se tiene que posicionar ,este Pleno se tiene que posicionar, ante un futuro de fusión de desaparición de la ubicación de Saiolan de Mondragón, a pesar de que todavía no este tomada la determinación técnica de Saiolan sabemos que se ha abierto un periodo de reflexión, que nosotros entendemos que está bien, pero que debemos de tener bastante más información y la segunda parte es como comentaba antes la política.

Creemos que ya se ha tomado la decisión y bueno a pesar de eso nuestro parlamentario Vicente Reyes en el Parlamento Vasco ya le va hacer otra vez una pregunta a la Consejera correspondiente para que nos diga qué es lo que se esta haciendo y cuales son las propuestas futuras para Saiolan. Por eso creemos que es indispensable que este Pleno apoye la moción del grupo socialista para posibles futuras tomas decisiones del gobierno en una posible, no solamente fusión, sino que deslocalización de Saiolan de Arrasate-Mondragon.

MARIA UBARRETXENA (EAJ-PNV):

Nik uste dut, lehenengo bai gustatuko litzaiguke pixka bat azaltzea guri helarazi diguten informazio baita eta oker baldin gaude esango diguzue: zeintzuk diren, bai BIC-Berrilan bai Saiolan bazkideak. BIC-Berrilanen gure informazioaren arabera Eusko Jaurlaritzak SPRIren bitartez dauka %45,29, Gipuzkoako Foru Aldundiak dauka 46,22 gehiago, Donostiako udaletxea 2,83, Hernaniko udaletxeak 2,83 eta Debegesak 2,83. Aldiz Saiolanen bazkideak gustatuko litzaiguke ere esatea Eusko Jaurlaritzak Spiren bitartez %26,37, Arrasateko udalak %13,53, Fundazioak Mondragon %25,02, Erkidek % 6, Gipuzkoako Foru Aldundiak %26.37, hau da, Eusko Jaurlaritzak bezain hainbeste eta gero dauzkagu Ulma, Alejandro Altuna, Ikerlan eta Mondragoneko Eskola Politeknikoko kooperatiba 0,68 bakoitzak.

Orduan, hemen ikusten da alde batetik Eusko Jaurlaritzak ez daukala ez baten ez bestean %50 baino gehiago, baino askoz ere gutxiago, eta beste alde batetik edo bestela udaletxea ere badakigu saiolanen kidea dela %13,53 horrekin eta guk jaso dugun informazio da bi organo administrazio kontseiluetan erreflexio estrategiko bat egitea erabaki zela, bi organoetan kide guztiak ados eta onartuta aurrera eraman zela erreflexio estrategiko hori, momentu honetan zortzi eskenategi posible edo aukera posible ikusten direla mahai gainean, horietako bik hitz egiten dutela fusio batetik eta momentuan behintzat erreflexio prozesu horretan daudela. Orduan guk informazio hau mahai gainean edukita eta hau ikusirik eta ikusirik gainera zortzi eskenatoki posible daudela zortzi haueetatik bik bakarrik hitz egiten dutela fusio bati buruz ba abstenitu egingo gara eta guk pentsatzen dugu, ba itxarotea ze ateratzen den erreflexio horretatik eta ze ateratzen den ikusten dugunean ba orduan posizionatuko gara politikoki.

MAIDER MORRAS (BILDU):

Arratsaldeon. Guk printzipioz ezezko botoa emango dugu, baina ez fusioaren alde gaudelako. Guk konpartitzen dugu zuek egiten duzue erreflexioa, dala saiolanek azken urteetan egin dauen lana eta zer suposatua dauen Arrasaterako. Ez dugu berriz ere errepikatuko zeintzuk diren partehartzeak, bai indartu ere berriz esan erreflexio prozesu hau edo hausnarketa prozesu hau denen artean erabaki dela egitea. Guk ere dakigunera arte egiten ari dena da ikustea zentro ezberdinak bai Saiolanek eta bai BIC Berrilanek momentu honetan zeintzuk diren dauzkaten bideak, zeintzuk diren dauzkaten funtzioak, zeintzuk izan leizken aurrera begira eduki dezaketene sinergiak eta eduki ditzaketene gauza amankomunak edo ez, eta guk dakigula prozesu horretan gaude momentu honetan, Mariak esan dauen ildotik.

Azterketa hau egitea beharrezkoa iruditu zaie han parte hartzen dauen bazkide guztiei, orduan guk momentu honetan zain gauz ia eskenatoki horretan edo mariak aurreratu dauen bezala 8 eskenatoki horren aurrean zein izan leiken gutxi gorabehera hartu behar den bidea eta behin erabaki aurretik zer dan gutxi gorabehera mahai gainean daukagula daukaguna ba guk erabaki bat edo bestea hartuko gau baina bueno printzipioz ezezkoa botua emango biokotzau mozioari, baina berriz esaten dut ez ez gauzelako ados mozioan esaten danekin ikusiko dugu gero deslokalizazio ematen dan edo ez edo bueno zertan hitz egiten ari garen.

ARITZ ARRIETA:

Nosotros estamos de acuerdo que se tiene que promover una reflexión de lo que puede ocurrir y bueno entendemos también que solamente habrá que hacer que es lo que puede ocurrir con Saiolan pero lo que nosotros pedimos es que dentro de esas 8 posibles actuaciones una de ellas es una fusión, es blindar de alguna manera que Saiolan se quede como esta es lo único que exigimos. Quiero decir que esta muy bien la reflexión pero sabemos también porque hay antecedentes que para cuando los socios mayoritarios, porque el PNV dice que el Gobierno Vasco tiene un 20 y pico por ciento, no recuerdo el porcentaje que ocurre si el Gobierno Vasco retirara dice que no en realidad la toma de partido del Gobierno Vasco bueno no es mayoritaria ¿no? Si hablamos económicamente, si el Gobierno Vasco retirara el capital que tiene hay veremos si es importante o no el porcentaje del gobierno vasco quiero decir el porcentaje del Gobierno Vasco tiene sus pros y sus contras evidentemente. Pero no podemos negar la importancia del gobierno y la importancia de la diputación foral.

Por lo que entendemos que lo que nosotros estamos sugiriendo en esta moción es que la posibilidad de la fusión se desvanezca que quede fuera estamos de acuerdo probablemente en reflexionar qué es lo que puede ocurrir con Saiolan pero la fusión tiene que quedar fuera de esa posible reflexión. Sólo pedimos que el pleno se posicione en contra de esa posible fusión que probablemente lo que haría es ser absorbida y deslocalizada geográficamente de Arrasate. Entonces, yo creo que siendo este ayuntamiento este pleno parte del consejo de administración se tiene que posicionar obviamente en contra de esa posible fusión que no hablamos otra cosa mas de eso, no vamos más allá, hablamos de ese primer paso porque sabemos que muchas veces también que en el momento en el que se planifica cual ha sido el estado y cual ha sido la reflexión encima de la mesa, la decisión ya está tomada y antes de que ocurra eso queremos que el pleno se posicione en contra de esa posible fusión.

INAZIO AZKARRAGURIZAR (Lehendakaria):

Bakarrik komentatzea gauzatxo bat ez mariak esan dauen bezala Saiolanen barruan dau parte hartze publiko pribatua . Hor danak sartu dira hausnarketa horretan, danak dauz ados hausnarketa hori egiteko. Orduan zer da planteatzen ari dena, ba kudeaketa administratibo bakarren bidez ni egituren fusioen aukera aztertzea baina ez da bata besteari xurgatzea gure apustua da eta diputazioarena ere, bi lan zentroak dauden tokian mantentzea, hau da, Saiolan Arrasaten mantenduko litzateke eta Bic Berrilan dagoen tokian, dauzkan egituren mantenduz. Fusioaren aukera ona izan daiteke, pentsatzen dugu, horrek ekarriko lukeelako bakoitzaren sinergiak aprobetxatzea eta bakoitzak daukan indar horiek handitzea baina, beti ere, partehartzen duten administrazioa desberdinen eta eragile pribatuen arteko adostasunez. Gure ustez enpresen berrikuntza zentro horiek Gipuzkoako izaera izan behar dute, ez bakarrik eskualdeko, hau da, Gipuzkoa guztira zabaldu nahi da eredu hori. Momentu honetan, prozesua azterketa fasean dago eta guk ez dugu erabakirik hartuko bazkideen adostasuna ez badago. Beraz, horregatik mozioari ezetza esango diogu, ze ez dauka inongo zentzurik fusioa bai edo fusioa ez. Eta ez dakit beste interbentziorik dagoen? Ez badago bozkatuko dugu.

Bertaratutakoak	18	
Aldeko botuak:	4	PSE-EE (4)
Aurkako botuak:	10	BILDU (9) eta ARALAR (1)
Abstentzioak	4	EAJ-PNV (4)

Beraz, ez da onartzen.

5.- IBAI-ARTEK PROPOSATUTA, BILDU, ARALAR ETA PSE-EE UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, TURISMO JOERA HANDIKO EREMUEN INGURUAN. (2014SMOZ0025)

Idazkariak BILDU, ARALAR eta PSE-EE udal taldeek aurkeztutako ondoko mozioa irakurtzen du:

Arrasateko Udal Osoko Bilkurara

Gabino Ramon Yarza Mendizabal jaun/anderea, Nafarroa Etorbidea 17-ko jakinarazpen helbidearekin, hurrengo erakundeek eratutako plataformako ordezkarezkin:

ECA-OCUV kontsumitzaile antolaketa,
EKE-a kontsumitzaile antolaketa
Euskadiko Merkataritza Elkarteen Konfederazioa, Euskaldendak. Blzkaiko
Merkataritza Elkarteen Federazioa, Bizkaidendak. Gipuzkoako Merkataritza
Elkartea, Dendaratean.
ELA sindikatua.
LAB sindikatua. CC.00
sindikatua. UGT
sindikatua.

7/1994 Merkataritza aktibitatearen buruzko Legearen ustezko Laugarren Aldaketari buruzko kezka jartzen dugu zure ezagueran eta 2014ko irailaren leko erabakia, Merkataritza eta Tutismoko Sailburuordearena, non erabakia publikoa egiten den, Bilboko udalean, etorri turistiko handiko zonei buruzkoa, merkataritza ordutegien aldetik.

Proposamen honen jatorria, "etorri turistiko handiko zonetako" aurreikuspenetatik ondorioztatutako beharrian okerra da 20/2012 Errege-Dekretu-legean (aurrekontu egonkortasuna eta lehiaren sustapeneko neurriak bermatzeko, uztailearen 13koa) eta 8/2014 Errege-Dekretu-legean (hazkunderako, lehiarako eta eraginkortasunerako presazko neurrien onepenekoa, uztailearen 4koa) jasoa.

Beharrian okerra diogu, Eusko Jaurlaritzako merkataritzan inguruko konpetentzien inbasio argia delako.

Puntu hori alde batera utziz, Errege-Dekretu-lege horiek duen transposizio zorrotzak, hurrengo hauetan ditu ondorioak:

1. Generoaren aldetik, emakumezkoak nagusi diren sektore batean (okupazioaren %63) eta haien lanaldiak aldaketak jasango dituela jakinik, atsedenerako eskubideari eragingo lioke eta bizitza familiarra eta blzltza laborala zailduko lituzke.
2. Barne merkataritza merkataritza turistiko bilakatzea. Horrek legegintzan esku-hartze bat suposatuko luke, gastu publikoaren transferentzia bat guri eragiten digun zonetan.

3. 2.261 merkataritza establezimenduren suntsiketa eta 3.886 enpleguren galera hirigunetik kanpo.
4. Zerga bilketetan galera, izan ere, merkataritza establezimendu txiki asko, sedea hemen dutenak, itxi egingo lirateke (BEZ bilketan galerak, sozietate gainekozergetan galerak, etab.). Gainera, alokatzeko prezioen gorakadak, merkataritza establezimenduen irteera eragingo du kaltetutako eremuetan.
5. Ingurumenaren iraunkortasunean eragina (energia kontsumoa eta ibilgailu pribatuaren erabilera handitu). Beste esperientzia batzuekin konparatzen baditugu, adibidez, Alemaniako kasuarekin, aldagai hauek bizitza laboralarekin batera kontuan hartzen dira araututako ordutegiak sortuz.

Egoera hauek aztertuta, horiei buruzko eranskina bidaltzen dizuegu (emandako aldarrikapenekin). Eusko Jaurlaritzan eta Eusko Legebiltzarrean ahalik eta arinen mozio bat aurkezteko eskatzen dizuegu, aipatutako aurrekarietan oinarrituz:

1. Euskadiko autogobernuaren eta merkataritzaren inguruko kompetentzia propinen defentsan, Konstituzio Auzitegian merkataritzako eta turismoko aurreikuspenak errekurritzeko, 20/2012 Errege-Dekretu-legean (aurrekontu egonkortasuna eta lehiaren sustapeneko neurriak bermatzeko, uztailaren 13ko) eta 8/2014 Errege-Dekretu-legean (hazkunderako, lehiarako eta eraginkortasunerako presazko neurrien onespenekoa, uztailaren 4koa) jasota daudenak".
2. 2014ko irailaren leko EBAZPENA baliogabetzeko, Merkataritza eta Turismoko sailburuordearena, non Bilboko udalean etorri turistiko handiko zonei buruzko erabakia publikoa egiten den, merkataritza ordutegiei dagokiona.

MARIA UBARRETXENA (EAJ-PNV)

Guk mozio honen inguruan ezezkoa botatuko dugu, ze ez dugu oso ondo ulertzen mozioa. Orduan mozioak bi puntu ditu: alde batetik, lehenengo puntua eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari bi errege lege dekretu lege horiek errekurritzeko bai? Eta guk daukagun informazioaren arabera Eusko Jaurlaritzak iada urrian nota prentsa baten bitartez esan zauen eta nota prentsa hemen daukat eta esaten dau "*eusko jaurlaritzak turismo handiko eremuetako saltokietako ordutegiak erabat liberalizatzeke legearen aurkako heletegia aurkeztuko du. Madrilek atzo kaleratu zuen eta eusko jaurlaritzak errekurtsioa aurkeztuko du ordutegiei, beherapenei eta jai egunei buruzko 20/2012 errege lege dekretuaren kasuaren bezala*, hau da, 20/2012 errege lege

dekretuarekin errekurritu zuen eta nota prentsa honen bitartez urrian agertu zena esaten da ere 8/2014ko legea ere errekurrituko dela eta arrazoia da, berdina. Legeak ez du aintzat hartzen autonomia erkidegoaren turismo handiko eremuak zehazteko gaitasuna eta estatuak erabakitako irizpideak eta baldintzak ezartzen ditu. Horrenbestez, legeak jarduteko gaitasun eta merkataritzaren gaineko eskumen berezia kentzen dizkio Euskadiri. Beraz, ulertzen dugunez lehenengo puntua eginda dagoela, ez dugu oso ondo ulertzen zergatik eskatzen den eginda dagoen gauza bat berregiteko.

Eta bigarren puntuari dagokionez mozioan esaten da 2014ko irailaren lehenengoko ebazpena eta da irailaren 2ko ebazpena, baina bueno 1 edo 2 akats txiki horrek be ez doa inondik inora. Baina aldi berean eskatzen zaio bai Eusko Jaurlaritzari eta bai lege biltzarrari. Guk daukagun informazioren arabera orain dela bi aste eusko legebiltzarrean talde guztiak Bildu ezik baina beste talde guztiak onartu zuten PNL bat una, proposición no de ley, eta PNL horretan Eusko Jaurlaritzari eskatzen zaio, legea aldatzeko eta helburua litzateke Rajoyren erabateko liberalizazio asmoak saihesteko eta turismo afluentzia handiko hirietako merkataritza ordutegien kudeaketa eta kontrola autonomia erkidegoaren esku gera dadin. Horrela jaurlarizatik udaletxeekin batera EUDELEkin eta beti herri bakoitzeko merkataritza elkarte nagusiekin herri bakoitzarentzat irtenbide bat erabakiko litzateke resoluzio bitartez. Orduan ulertzen dugunez bi puntuak eginda daudela, ba guk kontrakoa botatuko dugu.

MAIDER MORRAS (BILDU):

Guk ez dakigu helegitea jarriko dan edo ez eta jartzen baldin bada, izango dan edo ez kompetentzia edo norena dan kompetentzia edo kompetentzia eskaera horren ingurukoa. Kompetenziaren edo eskuduntza eusko jaurlaritzarena baldin bada helegitearen oinarria horrek guri printzipioz ez dozku bermerik ematen ez dala gero onartuko proiektu horretan agertzen diren ildo nagusiak. Ez dakit zuk esan duzun legezkoa ez dan proposizio horrekin edo PNL proiektu horretan, zer dan nahi dana. Berdina dan edo ez, hau da, eskuduntza eskatzea guk Eusko Jaurlaritzak arautzeko gero gune turismo handietan edo beste herrietan zeintzuk izango diren komertzioaren ordutegi eta baldintzak edo dan soilik kompetenziaren eskaera. Baina hori holan izanda guk oso argi daukaguna eta horregatik printzipioz IBAi Arteren mozioaren alde egingo dugu, zergatik mozioak esan nahi duena besteak beste da, nahiz eta gune handietan edo komertzio gune handietan edo turismoa dagoen herrietan hartu erabaki hauek eta liberalizazioa egin, bai ordutegietan eta bai lan baldintzetan, honek bai edo bai eragina dauka komertzio txikian eta herrietan eta honen aurrean gustauko jakun azaleratzea eta ikusaraztea komertzio txikian eragina oso handia izan leikeela eta komertzio txikia edo komertzioa printzipioz emakumezkoen eremu lan esparru bat %63a emakumeak dira, lanaldi aldaketa izugarriak jasaten dituzte euren ordutegiak nahiko zorrotzak die, atsedenerako nahiko, atsedena hartzeko nahiko problema edukitzen daue eta bueno lan baldintzak eta ezaugarriak nahiko prekarioak die, danok dakigu bezala.

Bestalde, liberalizazio honek komertzio txikiaren suntsiketa ekartzen du eta enpleguaren galera eta bai edo bai, eragina dauka zuzenki herrietako komertzioetan. Bestalde hitz egin geinke be bai ze motatako kontsumoa dan guk gure alderdiak babesten dauena, ezta? Dela sostengarria dan kontsumo bat, herrian kontsumitzekoa, bertako produktuak erosteko eta besteen kaltean ez, baina, erantzukizuneko kontsumo bat edukitzea eta uste dugu holako neurriak hartzen baldin badira eragina edukiko duela bai edo bai gure komertzio txikietan. Bueno hori Ibai Artek esaten dauen heinean eurak die dakixienak eta eurak eragin horrek pairatzen dituzten heinean ikusten badabe arrisku bat egon leikeela, guk printzipioz mozioaren

alde egingo dugu. Besteak beste ikusiko da gero zertan dauen edo zertan oinarritzen dan helegitea Eusko Jaurlaritzak jarri dauena.

ARITZ ARRIETA (PSE-EE)

Si bueno yo entiendo que los dos puntos se convierten en dos vías que ya están encaminadas y pueden estar aprobadas sabemos que en Parlamento Vasco, Bildu posiblemente no se adhirió a la PNL porque sabemos que en el trasfondo está EUDEL y todo lo que conlleva EUDEL en principio sabemos que Bildu no se adhiere.

También entendemos que a pesar de que estos dos puntos estén encaminados ya, y uno de ellos este ya aprobado y que bueno el Gobierno Vasco ya ha tomado cartas en el asunto Ibai Arte quiere que se municipalice de alguna manera esta reflexión, la afluencia turística en las grandes zonas urbanas. Entonces creemos que bueno que Ibai Arte está pidiendo que se le de un empujón al acuerdo que hemos llegado en el Parlamento Vasco con esa futura PNL o con esa PNL por lo que no entendemos que si hemos llegado a acuerdos en el parlamento vasco, cómo no vamos a llegar a acuerdos aquí para apoyar una moción de Ibai Arte. Creemos que si a pesar de que los dos puntos ya estén encaminados, no cuesta nada reforzarlo de forma municipal, que yo creo que es lo que pretende Ibai Arte, y que lo que realmente nosotros tenemos defender es nuestra municipalidad, y que si una asociación pide algo que ya esta encaminado, pues que menos que reforzarlo desde el Ayuntamiento.

MARIA UBARRETXENA (EAJ-PNV):

Bai azkena. Nik uste dut argi gelditu dela funtsean denok gaudela ados baina guk ulertzen dugu, eske mozio honek zehatz-mehatz esaten du, Eusko Jaurlaritzan eta Eusko Legebiltzarrean ahalik eta arinen mozio bat aurkezteko eskatzen dizuegu. Orduan, guk ulertzen dugu hori eginda dagoela. Azkenean da zure amak zuri esatea ogia eroatera joateko zu joaten zara ogia eroatera, gero joaten zaizu aita eta esaten dizu *ez baina erosi ogia, erosi det, ez baina erosi ogia, ze konpromisoa erakutsi behar duzu ogia erosi behar duzula*, bueno ogia erosi baldin badut ba erosi dut ogia.

Orduan puntuak eginda baldin badaude ba guk ezezkoa bozkatuko dugu

MAIDER MORRAS (BILDU):

Ez bakarrik, ze motatako ogia nahi dauien handixa, txikia, zerealetakoa, bestea... Hori da Ibai Arteren mozioaren filosofia hori da, ezta aitak edo amak bidaldu dabiela umea ogia erosten, gauza da ze ogi mota.

MARIA UBARRETXENA (EAJ-PNV):

Nik uste dut prentsurrekoan Eusko Jjaurlaritzako prentsurrekoan oso argi daudela zeintzuk diren ildoak eta Ibai Artek defendatzen dituen berdinak dira. Denok gabiltz dena defendatzen, berdina defendatzen, barkatu.

INAZIO AZKARRAGAURIZAR (Lehendakaria):

Besterik ez badago, bozketara pasatuko gara.

Bertaratutakoak	18	
Aldeko botuak:	14	BILDU (9), PSE-EE (4) eta ARALAR (1)
Aurkako botuak:	4	EAJ-PNV (4)
Abstentzioak	0	

6.- ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Agiria bidalita dagoela dio Idazkariak.

7.- GALDE-ESKEAK.

Ez daude.

Eta beste gairik ez dagoenez, Udal Plenoburuak, arratsaldeko 18:45:00tan, amaiera ematen dio bilkurari. Eta nik Idazkariak hori guztia ziurtatzen dut akta hau jasoz.

Arrasaten, 2014ko abenduaren 2a

IDAZKARIA

LEHENDAKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta

Inazio Azkarragaurizar Larrea